

Gure enpresak Guide Hear Tech S.L du izena. Enpresaren helburua itsuei laguntzea da eta bere bizimodua erraztea. Hiru urte daramatzagu proiektu hau pentsatzen eta azkenean duela urtebete argitaratu eta espainiar publikoarentzat salgai jarri ahal izan genuen. Oraingoz, Espainiako herriak bakarrik lor dezake produktu edo zerbitzu hau, baina pixkanaka gure produktua herrialde gehiagotara hedatzen saiatzen ari gara, beraiek ere lor dezaten.

## GUIDE HEAR TECH S.L



S.L motatako enpresa eratzea aukeratu genuen, hau da sozietate mugatua. Enpresa mota hau aukera hobea dela pentsatzen dugu, arrazoi askoengatik, hala nola, bazkideen erantzunkizuna. Kasu honetan mugatua denez, enpresa txarto joaterakoan bakarrik bakoitzak jarritako kapitala galduko genuke gehienez. Bestealde, bost bazkide parte hartzen dugu idei honetan Ibai, Jon Marko, Ainhize, eta Candela, hortaz, kupo hori ere betetzen genuen. Amaitzeko, enpresa eratzekoan 3000€ beherako kapitala genuenez mozkinaren %20 kapital sozialara joan zen, 3000€-ra ailegatu arte. Sozietate zergen bidez zergatzen dena.

Entzungailua iraultzaile hau itsuei ingurune ezezagunetan modu autonomoan nabigatzen laguntzeko diseinatu da. Honela funtzionatzen du:

### 1. Piztea eta konfiguratztea:

- Entzugailearen pizte-botoia sakatzean, gailua aktibatu egiten da eta eskatu egiten dizu helmuga bat ezartzeko, zeinetara joan nahi duzun.

### 2. Mapaketa eta orientazioa:

- Guide Hear Tech S.L-ek mapaketa teknologia erabiltzen du denbora errealean eta satelite bidezko posizionamendua, ingurunearen hiru dimentsioko mapa bat sortzeko.
- Gailuak uhin ultrasonikoak edo potentzia txikiko laserrak igortzen ditu, oztopoak detektatzeko eta ingurunearen profil zehatza sortzeko, egon daitezkeen arriskuak identifikatuz.

### 3. Ahotsaren eta berrelikadura haptikoaren jarraibideak:

- Erabiltzailea mugitzen den heinean, Guide Hear Tech S.L-ek ahots-jarraibideak ematen ditu denbora errealean, bere helmugara bideratzeko.
- Ahots-jarraibideez gain, gailuak atzeraelikadura haptikoa du informazio gehigarria transmititzeko, hala nola norabide-aldaketak edo oztopoen hurbiltasuna.

### 4. Bi norabideko interakzioa:

- Guide Hear Tech S.L-ek bi norabideko interakzioa ahalbidetzen du, gailuan ahots-komando sinpleen edo ukipen-keinuen bidez.

### 5. Konektibitatea eta eguneratzeak denbora errealean:

Gailua sare zentralera konektatuta egoten da etengabe, eta, horri esker, denbora errealean eguneratzen dira bideko baldintza aldakorrak, hala nola eraikuntzak, espaloiko aldaketak, etab. Aplikazioak ustekabeko egoerei buruzko alertak ere bidal ditzake, erabiltzailearen segurtasuna bermatuz.

Adibidez, erabiltzaileak inguruko informazio eguneratuari buruz galdetu diezaioke gailuari, gertuko interesguneen deskribapen zehatzak eskatu edo jarraibideen abiadura doitu dezake.



Guide Hear Tech S.L Bilbon kokatzen da, konkretuki Urbitarte kalean. Hasieran etxean hasi ginen, proiektua diseinatzen. Denborarekin, aurreztu eta gero gaur egun jarraitzen dugun lokal batean finkatu ginen. Entzungailua sortzeko, teknologiara dedikatzen den enpresa espainiar batekin harremanetan jartzen gara eta haiek dira gure entzungailuak programatzen

dutenak.

Proiektu hau berria da, inoiz ez delako horrelakorik sortu. Orain arte itsuek bastoi famatua erabili izan dute. Beraz, guk sortutako zerbitzu hau askoz modernizatuta dago, gure ustez etorkizunean pentsatzen egokiagoa dena. Istripuak gutxitzen eta ikusmen-gaitasun gutxiago duten pertsonen mugitzen laguntzen lagunduko die.